



Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua

195. artikulua. Autolikidazio batetik ondorioztatzen den zerga zorra ez ordaintzeagatik egindako arau-haustea.

1. Zerga arloko arau-haustetzat hartzen da tributuaren autolikidaziotik ateratzen den zerga zorra bere osoan edo zati batean ez ordaintzea tributu bakoitzaren araudian ezarritako epearen barruan, salbu eta foru arau honetako 27. artikuluan xedatutakoaren arabera erregularizatzen denean edo foru arau bereko 165. artikulua 1. apartatuko b) letra aplikatzea zilegi denean aurretiazko errekerimendurik egin gabe.

Zerga arloko arau-haustea izango da, halaber, bazkide, oinordeko, komunero edo partaideen zerga zorra bere osoan edo zati batean ez ordaintzea, zor hori errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek oker esleitutako edo esleitu gabeko kopuruetatik datorrenean.

2. Zehapenaren oinarria arau-haustearen ondorioz autolikidazioan ordaindu ez den zenbatekoa izango da.

3. Zerga arloko arau-hauste hau egiteagatik, 100eko 50etik 100eko 150era bitarteko diruzko isun proportzionala ezarriko da, betiere tartean daturik ezkutatu ez bada.

Hala ere, arau-haustea atxikitako kopuruak, konturako sarrerak edo benetan jasanarazitako tributuak ez ordaintzeagatik gertatzen denean, zehapenaren oinarriaren 100eko 75 eta 100eko 150 bitarteko isuna ezarriko da, betiere tartean daturik ezkutatu ez bada.

4. Daturik ezkutatu bada, zerga arloko arau-hauste hau egiteagatik 100eko 80tik 100eko 150era bitarteko diruzko isun proportzionala ezarriko da.

Hala ere, arau-haustea atxikitako kopuruak, konturako sarrerak edo benetan jasanarazitako tributuak ez ordaintzeagatik gertatzen denean, zehapenaren oinarriaren 100eko 105 eta 100eko 150 bitarteko isuna ezarriko da.

5. Zerga Administrazioari datuak ezkutatu zaizkiola ulertuko da autolikidazioak aurkezten ez direnean, edo aurkeztutako autolikidazioetan existitzen ez diren egitateak edo eragiketak sartzen direnean, zenbateko faltsuak aitortzen direnean, edo haietatik kanpo uzten direnean, erabat edo zati batean, eragiketak, sarrerak, errentak, produktuak, ondasunak edo zerga zorraren zehaztapenerako garrantzitsua den beste edozein datu, baldin eta ezkutaketatik ondorioztatutako zorraren eragina zehapenaren oinarriaren 100eko 10etik gorakoa bada.

6. Zergapekoak berari ez zegokion itzulketa bat jaso badu eta, egindako erregularizazioaren ondorioz, artikulua honetan araututako zehapenetako bat ezartzea badagokio, ordaindu gabeko zenbatekotzat hartuko da bidegabe jasotako itzulketaren zenbatekoari autolikidazioan ordaindu beharreko zenbateko osoa gehitzearen emaitza.



Kasu horietan, foru arau honetako 197. artikuluan aipatzen den arau-haustea, hau da, itzulketa bat bidegabe lortzea, ez da zehagarria izango.

7. Aurreko apartatuetan jasotakoa gorabehera, zergapekoak ez baditu epe barruan ordaintzen geroago aurkeztuko den autolikidazio batean berak sartutako edo erregularizatutako tributuak edo konturako ordainketak, eta aurkezpen horretan ez badira betetzen foru arau honen 27.4 artikulua aitortzen epe kanpo eta aurretiazko errekerimendurik gabe aurkezteagatik aurreikusten dituen errekerimenduak aplikatzeko baldintzak, 100eko 30eko zehapena ezarriko da.

Apartatu honetan ezarritakoa ez da aplikagarria izango baldin eta aurkeztutako autolikidazioan jasotzen diren sarrerak Zerga Administrazioaren aurretiazko errekerimendu bat izan duten kontzeptuei eta zergaldiei badagozkie.